



ERRESERBA NATURALA
LEHEN HEZKUNTZA
6. MAILA

Carmen Marcos eta Carmen Pueyo

2011ko ekainean berrikusia

Erreserba Naturala

Sekuentziak arlo hauek hartzen ditu barnean: Ingurunea, Euskara.

Gaia: Erreserba Naturala ezagutzen

Maila: LMHko 6. maila

Saio kopurua: 8

Proposamenaren testuingurua:

6. mailako ikasleek irteera bat egingo dute Urdaibai Erreserba Naturala ezagutzeko. Aldez aurretik, Parke Naturalari buruzko informazioa bilduko dute, liburuxka bat ondu beharko baitute irteeraren nondik norakoak gurasoei emateko.

Oinarrizko gaitasun hauek landuko dira:

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- Ikasten ikasteko gaitasuna

Helburu didaktikoak:

- IKTak erabiliz informazioa biltzea
- Testu deskriptiboaren egitura ezagutzea
- Testu deskriptiboa sortzea dagozkion ezaugarriak kontuan harturik
- Testua berrikustea
- Erreserba Naturalaren ezaugarriak zein diren ikastea
- Urdaibaiko berezitasunez jabetzea

Edukiak:

- Erreserba Naturalaren definizioa
- Urdaibaiko ezaugarriak:
 - kokapen geografikoa
 - itsasoa, itsasadarra, padurak, zorua
 - landaretza
 - fauna
 - jarduera ekonomikoak
- Testu deskriptiboaren egitura
- Interneten eta beste informazio-iturrien erabilera
- Testuaren planifikazioa
- Testuaren koherentzia

Jardueren sekuentzia:

- a) **Proiektuaren helburua eta egiteko era aurkeztu.**
- b) **Testu deskriptiboa landu.**
- c), d), e), f) eta g) **Informazioa bildu, eta testu deskriptiboa sortu.**
- h) **Proiektua defenditu eta balioetsi.**

Ebaluazio irizpideak eta adierazleak:

Adierazleak

1. Ea gai den Urdaibaiko ezaugarriak esanguratsuenak azaltzeko. (Proba idatzia)
2. Ea gai den testu deskriptiboaren atalak bereizteko. (Proba idatzia)
3. Ea gai den behar duten informazio zehatza topatzeko eta aukeratzeko. (3., 4., 5., 6. eta 7. jarduerak)
4. Ea gai den jatorri askotariko materiala sailkatuz testu propio bat sortzeko. (3., 4., 5., 6. eta 7. jarduerak)
5. Ea gai den testu bat sortzeko testu deskriptiboaren egiturari eutsiz. (3., 4., 5., 6. eta 7. jarduerak)
6. Ea gai den gaia besteekin adosteko. (3., 4., 5., 6. eta 7. jarduerak)
7. Ea gai den egindako lana besteen aurrean era egokian aurkezteko. (8. jarduerak)
8. Ea gai den besteen lanak arretaz eta errespetuz entzuteko. (8. jarduerak)
9. Ea gai den lana txukuntasunez aurkezteko. (3., 4., 5., 6., 7. eta 8. jarduerak)

Tresnak

- ✓ Ebaluaziorako proba idatzia
- ✓ Irakasleak aukeratu duen beste tresna bat:

JARDUEREN GARAPENA

1. JARDUERA

Urtero bezala, 6. mailako ikasleak Urdaibai Parke Naturala ezagutzera joango zarete. Hara joan baino lehen, parke honek hainbat eremutan duen garrantzia (fauna, landaretza, gizartea, jarduera ekonomikoa eta horien arteko lotura) non dagoen ikusi eta ikasi beharko duzue.

Bildu duzuen informazioa antolatu, eta liburuxka informatibo bat prestatu beharko duzue gurasoei Urdaibairako irteeraren nondik norakoak azaltzeko.

Launaka edo bosnaka jarrita, taldetan banatuko zarete. Talde bakoitzak bere foiletoa besteen aurrean aurkeztu eta defendatu beharko du. Gero, guztion artean adostuta, erabakiko duzue zein den hoberena gurasoei aurkezteko. Horixe izango da gure lana!

Gidoi honek lagunduko dizue informazioa antolatzen ez ezik, lana bera antolatzen ere:

GIDOIA:

- ❖ Izenburua
- ❖ Kokapen geografikoa
 - a. Zein herrialdetan dago?
 - b. Zein herrik osatzen dute?
 - c. Zeintzuk dira mugak?
 - d. Zenbateko zabalera dauka?
- ❖ Zergatik da Erreserba Naturala, eta zertarako?
- ❖ Erreserba honen berezitasunak:
 1. Itsasoak zer izen du? Eta zer izen dituzte hondartzek? Itsasadarra zer da?; Padurak zer dira? Paduraren berezitasuna zein da?
 2. Nolakoa da zorua?
 3. Zer landaretza mota dago paduretan eta mendietan?
 4. Fauna mota: hegaztiak, ugaztunak, narrastiak, arrainak...
 5. Jarduera ekonomikoaren berezitasunak: nekazaritza, basogintza, arrantza, ontzigintza, industria eta turismoa.

2. JARDUERA

Hemen duzue testu deskriptibo bat. Lehenengo, irakurri egingo dugu, guztion artean, eta, ondoren, atal bakoitzari dagozkion paragrafoak bilatu beharko dituzue testuan.

Sarrera
Ezaugarri fisikoak
Bizilekua
Elikadura
Ugalketa
Ohiturak



Bisoi amerikarra

Bisoi amerikarra bisoi europarraren mehatxu nagusia bilakatu da, haren habitata kolonizatzen baitu sarri. Bisoi amerikarrak beren larruaz baliatzeko ekarri ziren Europara, negozioa egiteko. Animalia kontrolatzen zaila denez, behin baino gehiagotan egin izan du ihes haztegietatik, eta inguruko ibaiez jabetu da. Europako bisoi edo ipurtatsa baino indartsuagoa da-eta, hura baztertzen ari da.

Bisoia tamaina ertaineko ugaztuna da. Bere bizitzako zatirik handiena uretan ematen du. Ibaiak, putzuak eta errekek ditu gogoko. Bertan bizi, elikatu eta ugaltu egiten da.

Igerian nahiz urpean animalia azkarra da. Zingo txikiko urak, zabalak eta batez ere ur-lasterrak ditu gogoko. Gainera, landare ugari dituzten erreka-bazterrak maite ditu. Normalean, ibai-ibilguen erdiko eta beheko zatiak hautatzen ditu bizitzeko.

Haragijalea da eta karraskariak, hegaztiak, anfibioak eta arrain batzuk jaten ditu. Gauz bizi da bisoia, eta bakarrik. Lauzpabost kume izaten ditu aldi bakoitzeko. Kumeak izan berritan, lehenengo hilabeteak elkarrekin ematen badituzte ere, uda pasatutakoan bakoitzak bere bideari ekiten dio.

Testu guztiek egitura egokia behar dute ideiak ordenan eta era koherentean agertzeko. Horrela, testua ulergarria izango da. Zuek ere, hurrengo jardueretan, testu bat sortu beharko duzue, eta testuak egitura bat behar du izan.

3. JARDUERA.

Launakako taldeak egingo dituzue, eta talde bakoitzean bi azpitalde (bikote bi) informazioa bilatzeko. Horrela, bikote batek Internetetik eskuratuko du informazioa, eta besteak, ostera, entziklopedietan, testu-liburuetan, eta abarretan bilatuko du. Hurrengo egunetan, taldeak txandakatu egingo dira, eginkizun horietan.

Gaurko lana betetzeko, web orrialde hauek erabil ditzakezue:

<http://www.urdaibai.org/eu/ingurumena.php>

<http://www.lurraska.com/euskera/herriak.html>

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-12892/eu/>

<http://www.slideboom.com/presentations/67042/Urdaibaiko-padura>

Data

Taldeakideak:

❖ Kokapen geografikoa

- a. Zein herrialdetan dago?
- b. Zein herrik osatzen dute?
- c. Zeintzuk dira mugak?
- d. Zenbateko zabalera dauka?
- e. Marraztu mapa geografikoa, eta bertan Urdaibai Erreserba Naturala kokatu.

❖ Zergatik da Erreserba Naturala? Zein da erreserba natural izatearen helburu nagusia?

Orain, taldearen lanak bateratu, eta bildu dokumentu batean, aurreko puntuei jarraituz. Gogoratu ortografia zaindu behar duzuela, eta txukuntasunez aurkeztu (idazkera garbia, marjina errespetatu eta alde bakar batetik idatzi). Ez ahaztu testua berrikusi egin behar duzuela, eta zuzendu, hobetu.

4. JARDUERA.

Bigarren jarduerako lan-eskemari jarraituz, osatu koadro hau.

Data
Taldekideak:
❖ Erreserba honen berezitasunak:
1. Itsasoaren izena eta bertan dauden hondartzen izenak.
2. Zer da itsasadarra?
3. Zer dira padurak? Paduraren berezitasunak.
4. Nolakoa da zorua?
5. Egin –edo bilatu– itsasadar horren azalpen-marrazki bat.

Fitxa bete eta gero, taldearen lanak bateratu, eta bildu dokumentu batean, aurreko puntuei jarraituz.

5. JARDUERA

Data
Taldekideak:
Zer landaretza mota dagoen paduretan eta mendietan.
• Landaretza mota
- Zuhaitzak: izenak, deskripzioa eta berezitasunak.
- Zuhaitzak: izenak, deskripzioa eta berezitasunak.
- Landareak: izenak, deskripzioa eta berezitasunak.
- Landare inbaditzaileak.

Fitxa bete eta gero, taldearen lanak bateratu, eta bildu dokumentu batean, aurreko puntuei jarraituz.

6. JARDUERA

Data

Taldekideak:

- Fauna mota: hegaztiak, ugaztunak, narrastiak, arrainak...
 - Hegaztiak: izenak, deskripzioa eta berezitasunak.
 - Ugaztunak: izenak, deskripzioa eta berezitasunak.
 - Narrastiak: izenak, deskripzioa eta berezitasunak.
 - Arrainak: izenak, deskripzioa eta berezitasunak.
 - Zomorroak: izenak, deskripzioa eta berezitasunak.

7. JARDUERA

Data

Taldekideak:

- Jarduera ekonomikoaren berezitasunak:
 - Lehen sektorea: nekazaritza (laboreak), abeltzaintza (azienda mota), basogintza (laboreak), arrantza (portuak eta itsasbazterreko arrantza).
 - Bigarren sektorea: ontzigitza (zer eta non kokatu) eta industria mota.
 - Hirugarren sektorea: turismoa (hotelak, kanpinak, jatetxeak, aisialdirako guneak) eta garraioak.

Fitxa bete eta gero, taldearen lanak bateratu, eta bildu dokumentu batean, aurreko puntuei jarraituz.

8. JARDUERA

Zuen lana besteen aurrean azaldu baino lehen, lanaren alderdi batzuk birpasatu behar dituzue, lana argia eta zuzena izan dadin. Hemen duzuen txantiloia bete ezazue; gero, zuzendu, *item*-en bati ezezko erantzuna eman badiozue.

LANA AZTERTZEN	BAI	EZ
Zuen testuak badauka izenbururik?		
Egin duzue sarrera txiki bat gaian sartzeko?		
Aipatu dituzue beste jardueretan eman diren pausuak (kokapen geografikoa, landaretza, fauna, jarduera ekonomikoak)?		
Erabili duzue puntuazio-zeinurik?		
Lanaren atalak paragrafo banatan daude?		
Esaldiak ulergarriak dira?		
Birpasatu duzue lana?		

Proiektuaren defentsa

Talde bakoitzak besteen aurrean aurkeztu eta defendatu behar du proiektua .

Gogoratzen dizuegu lan bat baino ez duzuela aukeratu behar gurasoei eskaintzeko. Lanik onena errazago aukeratzeko, beheko taula beteko duzue. Ahalegindu objektibotasunez jokatzeko. Talde bakoitzeko taula bat beteko duzue, eta punturik gehien lortzen duen taldea izango da aukeratua.

TALDEAREN ZENBAKIA	BALORAZIOA (0tik 10 era)
Azalpena argia izan da?	
Puntu guztiak agertu dira testuan?	
Ordena mantendu da?	
Azalpenean irudiez baliatu dira?	
Taldeko guztiek hartu dute parte?	
Argi hitz egin dute?	
Publikoari begietara begiratu diote?	
Lana txukuntasunez eginda dago?	
GUZTIRA	

LEHEN PROBA IDATZIA

Izen-abizenak

Data

1.- Aipatu zer ezaugarri izan behar duen eremu batek Erreserba Naturala izateko.

.....
.....
.....
.....
.....

2.- Ezabatu Urdaibai Erreserbarekin zer ikusirik ez duten lekuak.

Oka ibaia	Busturia
Artziniega	Kantauri Itsasoa
Gernika	Barakaldo
Bilbo	Laida
Nerbioi itsasadarra	Mediterraneo Itsasoa.

3.- Zer animalia bizi dira Urdaibaiko paduretan? Aipatu bost, gutxienez.

.....
.....
.....

4.- Azaldu zer den itsasadarra eta zelako garrantzia duen.

.....
.....
.....
.....

5.- Aipatu zein diren Urdaibai Erreserba Naturaleko jarduera ekonomikoak.

.....
.....
.....
.....

BIGARREN PROBA IDATZIA

Izen-abizenak

Data

Hemen duzue testu deskriptibo bat, baina ez dago behar den moduan ordenaturik. Testu deskriptiboaren irizpideak kontuan harturik, ordenatu testua zenbakiak jarritz.

Asiako elefantea 7 m luze eta 3 m garai izatera hel daiteke; Afrikakoa, berriz, tamainaz handiagoa da (4 m garai) eta belarri zabalagoak ditu. Belarriak tamainaz ezberdinak izan arren, elefante guztiek entzuteko ez ezik haizea emateko ere erabiltzen dituzte, abanikoak balira legez. Bestalde, oso begi txikiak dituzte; horregatik ez dute ondo ikusten.

Ikusgarriena elefantearen tronpa da, 2 m baino luzeagoa izan daiteke eta. Sentikorra bezain indartsua da, eta gauza askotarako erabiltzen du: pisuak lekuz aldatu, elikadura lortu eta gorputza dutxatzeko, besteak beste. Dastamena eta usaimena ere tronpan ditu. Horrez gain, organo honek forma guztiak hartzen ditu, eta lehorteetan ura aurkitu dezake, tronpa lur azpian sartuz.

Ugaztun guztiak bezala, elefante-kumeak ez dira arrautza batetik jaiotzen amaren sabeletik baizik. Arrak eta emeak ernaltzeko baino ez dira elkartzen. Horretarako ernaltze gaitasuna izan behar dute, hau da, arrak emearengan izaki berri bat sortzeko gaitasuna. Arrarena 20 urterekin hasten da; emearena, ordea, 16 urterekin. Ernaldia 20-22 hilabetekoa da, animalia guztietan luzeena. Ernaldi bakoitzean kume bakarra jaiotzen da, 100 kg pisatzen duena eta 1 m-ko luzera duena.

Elefantea

Elefanteak elefantidoen familiako ugaztun lurtar handiak dira. Familia honetako hiru espezie bizi da egun: sabanako elefante afrikarra, oihaneko elefante afrikarra eta elefante asiarra (edo elefante indiarra). Normalean 50 eta 70 urte artean bizi dira.

Elefantea herbiboroa da, hau da, belarra eta landareak jaten ditu. Bere gorputza elikatzeko, egunero 300 kg janari hartu behar du, eta 100 l ur baino gehiago edan.